

TALDEA: LUCAS, EÑAUT, IMANOL, ALEX eta MARKEL

SARRERA:

Tekno gaian, Startinnova programak, taldeka lan bat egiteko eskatu digute. Gure taldea Alex, Eñaut, Lucas, Imanol eta Markel da. Kasu honetan programa horrek produktu original, inobadore eta berri bat sortzea eginarazi digute. Taldean eztabaidatuta hainbat produktu bururarazi zaizkigu, baina hainbat ikerketa egin eta gero produktu hau aukeratu dugu:

IDEIA:

Gure ideia ur azpian arnasteko ahalmena emango diguen makina txiki bat sortzea da. Makina honek uraren H₂O molekulak hartuko ditu eta molekula hori banandu egingo du, honela oxigenoa lortuko dugu, bonbonarik erabili beharrik gabe.

Gure taldea oso aditua denez buzeoan makina txiki hau sortzea bururatu zaigu. Diru asko gastatzeko beharra izaten dugulako buzeoko materialean, batez ere oxigenozko bonbonekin. Hainbeste diru gastatzea nekagarria da eta horren ondorioz burutu zaigu ideia hau, gainera askoz ere komodogoa egiten da igeri egiteko garaian, eta hori asko eskertzen den gauza bat da. Guk ideia hau sortu aurretik ur azpira bonbonekin eta maskarekin sartzen ginen, eta hori oso pisutsua eta deserosoa da, baina gure ideiak honekin hainbat abantaila lortzen ditugu, esate baterako, ez du pisurik eta oso eroso da.

Guk uste dugu gure proiektu hau, gure lehiakideekin konparatuta, hoberena dela, izan ere, geroz eta jende gehiagok buzeatzen du, eta uste dugu bonbonak eboluzionatu edo proiektu berri eta inobadore bat egin beharra geneukala, horregatik uste dugu gure proiektu honek abantaila asko ekarriko dituela.